

Aparkalekuak jarri dituzte Anoetako Leku Eder etxea zegoen lekuan

Ikastola inguruan dagoen Txulo baserrira doan bidea kotxerik gabeko gune izendatu dute // **2**

Hiribusari buruzko kezka azaldu dute Tolosako auzo elkarteek

Tolosako Udalean ariko diren alderdiei hainbat konpromiso zehatz hartzeko eskatu diete // **4**

Kultur ekitaldiz betetako asteburua izango dute Berazubín

V. Aste Kulturala antolatu dute Tolosako auzoan; txapel jaurtiketa egingo dute larunbatean // **5**



IRATU DALLETALETE

ALEGIA URTEURRENEKO FESTA

Alegiako Sutarri dantza taldeak 20 urte bete ditu eta urteurrena ospatzeko jaia egin du; dantza taldeko 100 bat dantzari ibili dira kalejiran eta bazakaltzeko bildu dira gero; egun borobila izan dela esan dute // **5**

«Izugarria da urte osoko lana horrela bukatzea»

Realak Espainiako Kopa irabazi zuen larunbatean Atletico Madrilen aurka eta bertan zen Nerea Eizagirre tolosarra; taldearen gogoa eta ilusioa nabarmendu ditu futbolariak // **6**

Iker Karrera mendi lasterkari ohia omendu dute

Herrian bertan, Amezketan, jaso du omenaldia, Mendi Astearen barruan; bere ibilbide profesionala eta pertsona bera batzen dituen dokumentala eskaini dute // **7**


Maiatzak 20,
astelehena,
18:30etik aurrera,
Topic-en.

M26



Tolosako alkategaien mahai ingurua

Olatz Peon (EAJ)
Andu Martínez de Rituerto (EH Bildu)
Joxe Mari Villanueva (PSE-EE)
Peio Atxukarro (PP)
Iñigo Cabieces (Elkarrekin Podemos)



Sacem zubi berriko lanak esleitu dituzte dagoeneko

AMASA-VILLABONA // Gipuzkoa-ko Foru Aldundiko Bide Azpiegitura sailak, GI-4751 errepidean Zizurkil eta Anoeta batzen dituen Legarreta zubiko oinezko-entzako eremua handituko duen lanak esleitu ditu. Altuna y Uria S.A. enpresa azpeitiarra izango da lan hauek burutzeko ardura izango duena.

Begiraleak behar dituzte 'Abenturaz Blai' udalekuetarako

ADUNA // Aduna, Albiztur, Alkiza, Altoz, Arana, Larraul, Lizar-tza eta Olaberriko 40 nerabe inguruk hartuko dute parte aste-beteko egonaldi batean, Kantabrian, ekintza ezberdinez gozatuz. Begirale izan nahi dutenek lanpoltsa@urtxintxa.eus helbidera curriculumak bidali beharko dute, ahalik eta lasterren.

Balorazio positiboa egin dute 'VA Gera herri bat' ikuskizunaz

Publikoaren aldetik egondako erantzun bikaina azpimarratu dute Migel Zeberio zuzendariak eta Maite Izagirre alkateak

Erredakzioa Amasa-Villabona

Maiatzaren 3an eta 4an, bi kontzertuetan, mila ikusletik gora batu ziren kiroldegian, kopurua Amasa-Villabonako kultur ekitaldi batentzako datu garrantzitsua izanik. Euskal Herri osotik bertaratutako jende ugari izan zen ikuskizunak oihartzun nabarmena lortuz. Parte hartze datu horiekin batera, bertaratu ziren pertsonen balorazioa oso positiboa izan zen, askok lehen mailako ikuskizuna izan zela aitortuz.

Maite Izagirre alkateak esan bezala, «balorazio positibo honen beste alderdi bat, ikuskizunak izan zuen izaera solidarioa da. Alkate moduan izugarri pozten nau Europa mailan, autismoa duten pertsonen arretan erreferentea den Gautena bezalako erakunde bati ekonomikoki lagundu eta ikusgarritasuna eman izanak». Erakundeak ikuskizunaren antolakuntzan eskaini zuen laguntza aipatu du, baita ere, alkateak.

VA Gera herri bat ikuskizunak gainera, Amasa-Villabonako sinboloak indartzeko balio izan du, Jose Antonio San Miguel musikagilearen musika moldaketa auseratekin eta Juan Kruz Igerabide idazle entzutetsuak eginiko euskarazko letrek Villabonako eraserkia berriro dutelarik. Horren harira, Izagirrek «datozen Santio haietan eta Samartinetan, doinu eta letra berri horri balorea eman-go diogu, herritar guztientzako ezaguna izan dadin eta erabil dezagun», gehitu du.

Migel Zeberio, ikuskizuneko zuzendaria, «oso pozik» agertu da ekitaldiarekin, «ez da ohikoa Amasa-Villabonan egin den ikuskizuna aurrera ateratzea. Lan berezia izan da, herriari eta bere historiari egokituriko ikuskari originala».

Behin behineko aparkalekuak egokitu ditu Anoetako Udalak

Leku Eder etxea zegoen ingurua egokitu dute, eta bestalde, Txulo baserrirako bidea kotxerik gabeko eremu bihurtuko da aurrerantzean, ikastolarako bidea arrisku gabe utziz

Erredakzioa Anoeta

Anoetako Udalak ibilgailuekin loturiko bi soluzio burutu ditu azken asteetan. Aparkalekuak eta ikastolarako bidea kotxe gabe izatea dira proposamenak.

Alde batetik, herrian aparkaleku arazoa dutela jakitun izanik, behin behineko irtenbide bat ematen saiatu da udala. Leku Eder etxea zegoen tokian zorua egokitu dute eta kotxeentzat behin behineko aparkaleku bat egokitu dute. Eremu honen alboko lurzorua ere egokitu egin da, ibilgailu luze eta autokarabarentzat.

Anoetako Udalak espero du erabaki horren bidez herriguneko aparkalekuak pixka bat «libratuko» direla eta herrian aparkalekuekin duten arazoa, neurri



Leku Eder etxea zegoen tokian zorua egokitu dute aparkalekuetarako. ATARIA

handi batean behintzat, arinduko dela.

Bestetik, Txulo baserrira doan bidea kotxeentzako itxita gera-

tuko da hemendik aurrera, ohar batean Anoetako Udalak jakinarazi duenez. Honenbestez, ikastolara doazen gaztetxoek eta bide hori erabiltzen duten herri-tarrek arrisku gabe egin ahal izango dute bidea, aurrerantzean kotxerik ez delako ibiliko inguruan.

IRAGARKI LABURRAK

Zerbitzaria

Tolosalde. Taberna batean zerbitzari bat behar da. Interesatuak, dei dezatela 647 446 363 zenbakira.

Tolosalde. Asteburuetarako zerbitzaria behar da. Interesatuak, 605 727 730 telefono zenbakira deitu edo beartzana@beartzana.com helbidera idatzi behar dute.

Kamioi gidaria

Tolosalde. Olaso Elkartea S.L. enpresak, LC+E gidabaimenak eta CAP-a duen esperientzia duen kamioi gidaria behar du. Baldintza onak eta epe luzeko kontratua eskaintzen dira. Interesa duenak, honako telefono zenbaki honetara deitu beharko du: 627 197 524.



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburra.eus-en



Gizarte politiken arloko asmoak azaldu ditu alderdi jeltzaleak

Uzturren adinekoentzako plaza gehiago kontzertatzea eta Familia Elkargunea indartzea nahi dute, besteak beste.



Tolosako musika eskolan egin zuten agerraldia atzo goizean. I.U.

Irati Urdalleta Lete Tolosa

Tolosako EAJ-PNVren udal hauteskundeetarako programa bost ardatzetan dago banatuta eta atzo goizean aurkeztu zuten gizarte politikari dagokiena. Olatz Peon alkategaiak baieztatu zuenez, azken agintaldian, gizarte politikek izan behar duten norabidea «asko argitu da».

Gizarte mapa bat egin dute. «Maparen garapen horretan, aipatzekoa da etxeko zerbitzua», adierazi zuen. Horren bidez, pertsonak ahalik eta gehien eta duintasunez beraien etxeetan bizi daitezkeen nahi dute.

Bestetik, bazterketa egoeran dauden pertsonen gaueko arreta zerbitzua daukate eta alderdi jeltzaleak hori gehiago profesiona-

lizatzea nahi du. Horrez gain, eguneko arreta zerbitzua ere jarriko dute. «Prebentzioaren arloan, mendekotasun egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonentzako eguneko arreta proposatzen dugu». Prebentzioa gizarte zerbitzuetako alor garrantzitsu bat dela gaineratu zuen.

Horrez gain, gizarte gero eta zaharragoa denez, Uzturren adinekoentzako plaza gehiago kontzertatzea proposatu zuten. Era berean, alkategaiak azaldu zuen posible izan dela Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean Familia Elkargunea edukitzea, eta zerbitzu hori osatuko dutela esku hartzeak bertan eginez. Azkenik, eskualdeko osasun diagnostikoa egiteko konpromisoa ere hartuko dutela adierazi zuen.

«Herrien arteko elkarlana» ezinbesteko ikusten du EH Bilduk

Tolosaldeko EH Bilduk alkategaien aurkezpen ekitaldia egin du, Tolosan. Tolosak eskualdearen kohesiorako duen garrantzia nabarmendu eta herrien arteko elkarlana sustatuko dutela adierazi dute alkategaiak

Erredakzioa Tolosaldea

Tolosaldeko EH Bilduko alkategaiak aurkezteko ekitaldia egin zuten, ostegunean, Tolosako Zerkasian. Tolosako alkategai Andu Martinez de Rituertok eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagai eta Berastegiko alkategai Amaia Azkuek hartu zuten hitza. Herritarrei eta udal jardunari ekarpena egin asmo dietela adierazi zuten eta gobernatu nahi dituzten udaletan herritarren parte hartzea errazten ahalginduko direla azaldu zuten.

Bide horretan, Tolosak eskualdearen kohesiorako duen garrantzia nabarmendu zuen Martinez de Rituertok: «Tolosak dituen baliabideak eskualdearen mesederako ere badira eta erronka asko eskualde mailakoak dira». Erronka horiei aurre egiteko herrien arteko elkarlana ezinbestekoa dela azpimarratu zuen: «Elkarlan horrek egiten du Tolosa handi, eskualdetik ere elikatzen delako».

Amaia Azkuek, bere aldetik, Tolosaldeak Gipuzkoara begira dituen erronkak zehaztu zituen.



Tolosaldeko EH Bilduko alkategaiak, ostegunean egindako agerraldian. I. SAIZAR

Mugikortasuna, Tolosaldeko Emakumeen Etxea, hondakinen kudeaketa, osasungintza eta euskararen inguruko gaietan «ondoan edukiko dugun aldu indartsua behar dugu», gaineratu zuen Azkuek. Tolosaldeko oreka bermatzeko aukera EH Bildu dela aldarrikatuz amaitu zuten ekitaldia.

14 ARLO, PROGRAMARAKO

Andu Martinez de Rituerto Tolosako alkategaiak egin du udal hauteskundeetako programaren aurkezpena ere. Hamalau arlotan banatu du EH Bilduk bere programa: gizarte politika, sozioekonomia, hirigintza, kultu-

ra, berdintasuna, osasungintza, gazteria, ingurumena, hizkuntza politika, kirola, hezkuntza, aniztasuna eta migrazioa, bizikidetza eta parte hartzea. Hala ere, gai guztietan zeharkako «bost geruza» jaso dituzte, «berdintasuna, jasangarritasuna, osasuna, ekitatea eta euskara».

Tolosar orok, bizitza duina eta aberasgarria aurrera eramateko aukerak sortu asmoz osatu dute programa, Martinez de Rituertoren arabera. Lan batzordeak osatu dituzte, arlo bakoitzeko egoeraren diagnostikoa egin, Tolosako eragileekin elkartu eta ildo orokorrak eta neurri zehatzak definitu dituzte.

«Gehiengoaren alde lanean» arituko dira

Tolosarako hauteskunde programa aurkeztu zuen ostiralean PSE-EEK; «tolosarentzat erreferente demokratikoa» izan nahi dute

Erredakzioa Tolosa

Alderdi sozialistak aurkeztu duen hauteskunde programa Tolosak aurrera egiteko «konpromiso etiko eta politikoa» dela azaldu zuen Joxe Mari Villanueva alkategaiak. «Gizarte agenda eta zerbitzu publikoen hobekuntza lehenetsiz kudeatu nahi dugu», esan zuen.

«Herritarrek elkarlanean eta herritarrendik gertu egonez» aritu nahi dute udal politikan, eta horretarako, zazpi ardatz nabarmendu zituzten.

Besteak beste, gizarte politikan, pertsonen duintasuna babesteko, kolektibo ahulenei arreta eman nahi die: «Pertsonak dira gure jarduera politikoaren erdigunean egon behar direnak, eta hori lortu ahal izateko gizarte zerbitzu publikoak, murrizketarik gabe, egon behar dute». Berdintasunari lotuta, Emakumeen Etxea bultzatzearen alde agertu dira eta Berdintasunerako III. plana edo parekidetasunerako udal ordenantza aipatzeaz gain, honakoa esan zuen: «Tolosako kaleetan emakumeentzat izan

daitezkeen puntu arriskutsuak identifikatu eta segurtasun neurriak aplikatuko ditugu». Osasungintzan, berriz, «Osakidetzak eskaintzen dituen zerbitzuen karta tolosarentzat bermatzea» eskatu dute. Hirigintza arloan, bederatzi puntu aipatu zituen, San Esteban, Zumardi Txiki, Rondilla Kalea edo Renfeko geltokia aipatuz. Trafiko handiari ere konponbidea eman nahi die, adibidez, «Arriarango biribilgunean aurreikusitako Oria gaineko zubia eraikiz». Kiroletan ondorengo asmoak azaldu zituen:



Ostiralean eman zuten hauteskundeetarako programaren berri. ATARIA

Usabalgo hirugarren fasea burutzekoa, zelaiko belar artifiziala berritzekoa edo Uzturpeko kirol instalakuntzak birmoldatzekoa. Kultura eta jaien inguruan, euskararen erabileraren aldeko konpromiso «sendoa» erakutsi zuen eta San Joan jaien edo inauterien inguruko diagnostiko baten be-

harraz hitz egin zuen, berritzeko helburuarekin. Azkenik, industria eta enpleguaren atalean, tokiko merkataritza eta hotel sektoreari laguntzeko programez, 45 urtetik gorakoentzat enplegu planez eta Apatxa Errekaren bigarren fasea bultzatzeaz arituz Villanueva.



BALORAZIO «ONA»

Saharatik udan umeak ekarri eta Tolosako aterpetxean egon daitezen, bueltaka aritu ziren, igande goizean, Berazubín. Balorazio positiboa egin du ekintza antolatu duen Tolosaldea Sahararekin elkarteak. Pentsatzen dute hiru haur ekartzeko adina diru bildu dutela eta laugarren haur baten bidaia eta mantenua zalantzan egongo lirakeke. IRATI URDALLETA



ERRALDOIEN TOPAKETA

Zizurkil izan da erraldoien topaleku. Larunbatean egindako topaketan, Añorga, Villabona, Ibarra eta Zizurkilgo erraldoiak elkartu ziren. Herrian barrena musikarien laguntzarekin kalejiran ibili ziren, eta ondoren, bazkaria egin zuten. A.I.



CROSSFIT-A EZAGUTUZ

Kulturaldian murgilduta daude berrobitarrak, eta hainbat egitasmo izaten ari dira maiatzean zehar. Larunbatean, esaterako, crossfit-a ezagutu eta egiteko aukera izan zuten, izerdi pixka bat ateraz. I. GARCIA LANDA

Auzo elkarteek Hiribusarekin konprometitzeko eskatu dute

Tolosako Udalera hautagaitza aurkeztzen duten alderdiei egin diete eskaera. Gainera, salatu dute orain arteko arazoaren aurrean, udalaren jarrera ez dela oso txukuna izan

Irati Urdalleta Tolosa

Udal hauteskundeak gainean dirrela kontuan hartuta, Amarotz, Berazubi, Larramendi, Otsabi Izaskun eta Ttonttor San Esteban auzo elkarteek hainbat eskaera egin dizkiete, Hiribusaren inguruan, Tolosako Udalera hautagaitza aurkeztzen duten alderdi guztiei: Tolosako hiri garraio publikoaren zerbitzua (Hiribusa) programa eta eginbeharren barruan sartzea, oinarritzko zerbitzu modura; Tolosako hiri garraio publikoa udalak zuzenean eta osorik bere ardurapean kudeatzeko konpromiso irmoa erakustea; konpromisoa hartzeko kalitatezko zerbitzua eta beharrei behar bezala erantzuten die-na emateko; eta aurreko guztia modu publikoan adieraztea herriari.

Azken boladan, zerbitzuak gorabehera handiak izan dituela salatu dute: langileen greba, zerbitzuen adjudikazioa, autobus



Tolosako bost auzo elkarteek egin dituzte eskaerak. I.U.

akasdunak... Gainera, egoera hori herritarrek pairatu behar izan dutela azpimarratu dute. Era berean, salatu dute egoera horren aurrean Tolosako Udalak izan duen jarrera eta ardura ez dela izan oso txukuna.

Auzo elkarten ordezkariak baieztatu dutenez, oso garrantziko zerbitzua eskaintzen die herritarrei Hiribusa bezala eza-guna den Tolosako hiri garraio publikoak: «Zerbitzua oinarritz-

koa da tolosarren bizitza kalitateari eusteko eta hura hobetzeko».

Izan ere, Hiribusa mota askotako herritarrek erabiltzen dute: ikasleek ikastetxeetara joan-etorriak egiteko, Iurreamendi egoitzakoek, Asucion klinikakoek, kiroldegiko erabiltzaileek, auzo-etako jendeak, gazteek, adinekoek, elbarriek... Beraz, auzo elkarten eskaerak bete daitezela exijitu dute.

Parrillaren hiriburu

Ehunka tolosar eta bisitarien presentzia izan du HARAGI topaketak, helburuak «aise» beteta

Erredakzioa Tolosa

Tolosan egin den HARAGI, Txin-garraren eta Haragiaren Nazio-arteko Topaketaren bigarren edizioa, «arrakastaz» itxi dute.

Jende asko gerturatu da antolatzaileen esanetan Tolosara, «giro paregabea» sortuz. Tolosako Udala, Basque Culinary Center eta Hazi Fundazioak helburuak aise bete dituztela azaldu dute, «pozarren». Euskal Herria plaza izan zen HARAGIren gune nagusia, eta zuzeneko erakustaldi eta dastatzeek ehunka bisitari bildu zituzten, parrillariak harritzerainoko jende ilarak sortuz. Ehun pertsona inguruk parte hartu zuten txuletak erretzen ikasteko tailerren, eta ohikoa bihurtu den Zerkausiko bazkariak ia 300 pertsona bildu zituen, herriko lau erretegiek eskainitako Txuleta Menua dastatzeko.



Jende asko ibili da Euskal Herria plazan haragia modu ezberdinetara dastatzeko. I.U.

Sutarriren urteurren festa, «borobila»

Alegiako Sutarri dantza taldeak 20. urteurren festa egin du; 100 dantzari inguruk parte hartu zuen kalejiran, eta bazkaltzen 145 lagun elkartu ziren

Erredakzioa Alegia

20. urteurrenaren ospakizun eguna izan zuten, igandean, Alegiako Sutarri dantza taldekoek. «Egun borobila» atera zela adierazi dute taldeko kideek. Goizean, kalejiran ibili ziren 100 dantzari inguru, eta hainbat dantza egin zituzten herriko zenbait txokotan. Adin ezberdineko haurrek nahiz helduak eskaini zituzten dantzak.

Kalejiren, polken eta beste hainbat euskal doinuren erritmora aritu ziren, eta kalejiren erritmora herria dantzan jarri zuten.

Goizean dantzan aritu ondoren, herri bazkaria egin zuten plazan. 145 pertsona izan ziren bazkaltzeko elkartu zirenak, eta arratsaldean ere dantzarako aukera izan zuten Elizagoien ahizpekin.

Sutarri dantza taldetik, bai goizean eta baita arratsaldean ere parte hartu zutenei eskerrak eman nahi dizkiete.



Goizean kalejiran ibili ziren herrian barrena. I. URDALLETA



«HUNKIGARRIA DA»

Iñaki Letamendia Tolosako Txistulari Bandako zuzendari ohi eta txistu irakasle ohiari zilarrezko domina eman dio Euskal Herriko Txistulari Elkarteak. Hunkituta jaso zuen saria: «Esan zidatenean sinistu ere ez nuen egiten. Horrela erabaki dute eta eskertzekoa da; txistulari bati eman daitekeen sari nagusia da». I. GARCIA LANDA



TXIKIENAK DANTZAN

Dantzari Txiki Eguna ospatu zuten irurarrek, larunbatean. Txikiak herrian zehar dantzan ibili ziren emanaldiak eskaini eta eskaini, eta ikasturtean zehar ikasitakoa herritarrei erakutsi zieten herria girotuz. A. IMAZ

Munduko txapel jaurtiketa egingo da, Berazubín



Auzo Elkarteko kideek aurkeztu eta antolatu dute V. Aste Kulturala. A. IMAZ

Etzi emango diote hasiera V. Aste Kulturalari, ardo dastatzearekin; asteburu bete-betea dute aurretik

Erredakzioa Tolosa

Berazubiko auzo elkarteak V. Aste Kulturala antolatu du. Hilaren 16tik 19ra ekitaldi ugari antolatu dituzte, eta tartean, II. Munduko Txapel Jaurtiketa Txapelketa. Berazubiko estadioan

jokatuko da txapelketa eta gizon nahiz emakumeek izango dute parte hartzeko aukera. Auzoko festetan Europako txapelketa antolatzen dute, eta kultur astearen barruan iaz mundukoa antolatzen hasi ziren.

Etzi, 19:30ean egingo duten ardo dastatzearekin hasiko dira. Jose Migel Rodriguez Ochagabia, Marques de Cacereseko enologoa izango da, baina parte hartzeko gonbidapena beharko da.

V. ASTE KULTURALA

Maiatzak 17, ostirala

17:30. Haurrentzako pelikula auzo elkarteak: *Los futbolisimos*.

19:00. Lobo eta Karminek girotuta-ko pintxo potea.

Maiatzak 18, larunbata

12:00. II. Munduko Txapel Jaurtiketa Txapelketa Berazubiko estadioan.

13:00. Triki poteoa auzoko kaleetan.

14:30. Bazkaria.

16:00. DJ Peru.

22:30. Antzerkia Berazubiko auzo elkarteak: *Cosas de juglares*.

Maiatzak 19, igandea

12:00. Pintxo poteoa eta herri kirolak: Aimar Irigoien harri-jasotzailea eta Aratz Mugertza eta Iñaki Azurmendi aizkolariak.

14:30. Herri bazkaria norberak eramanda.

16:30. DJ Djotas



KIROLEMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

28. jardunaldia

Lauburu-Futsal IBI	7-1
Laskorain-Tafatrans	2-1

Sailkapena

2. Lauburu Ibarra	58p
10. Laskorain	32p

Hurrengo jardunaldia

La Union Calatayud (16)-Lauburu (2)	
Pinseque (7)-Laskorain (10)	

GIPUZKOAKO SENIORRAK, 2. FASEA, LEHEN MULTZOA

5. jardunaldia	
Trintxerpe-Lauburu	3-1

Sailkapena

4. Lauburu Ibarra	3p
-------------------	----

Hurrengo jardunaldia

Lauburu (4)-Ordizia (1)	
-------------------------	--

GIPUZKOAKO SENIORRAK, 2. FASEA, BIGARREN MULTZOA

5. jardunaldia	
Anoeta F.T.-Samaniego Orixe	8-2

Sailkapena

3. Anoeta F.T.	8p
4. Samaniego Orixe	0p

Hurrengo jardunaldia

Garroa Taberna (2)-Anoeta F.T. (3)	
Saman. Orixe (4)-Idiazabal (1)	

Futbola

EUSKAL FEDERAZIO KOPA

1. jardunaldia	
Tolosa CF-BIZKERRE 'B'	2-1

Hurrengo jardunaldia

Final-zortzirenak	
Tolosa CF-Oiartzun	

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

32. jardunaldia	
Tolosa CF-Anaitasuna	2-0

Sailkapena

1. Eibar	73p
2. Anaitasuna	64p
3. Tolosa CF	61p

Hurrengo jardunaldia

Allerru (16)-Tolosa CF (3)	
----------------------------	--

ERREGIONAL OHOREZKO MAILAKO KOPA

1. Kanporaketa	
Lagun Onak-Tolosa CF	0-3

ERREGIONAL PREFERENTEA, LEHEN MULTZOA

30. jardunaldia	
Touring-Tolosa CF 'B'	2-1
Urnieta-Billabona KE	1-2

Sailkapena

i875. Tolosa CF 'B'	51p
6. Billabona KE	51p

LEHEN ERREGIONALA, IGOERA FASEA

9. jardunaldia	
Danena-Urola	4-2

Sailkapena

2. Danena	15p
-----------	-----

LEHEN ERREGIONALA, KOPA

9. jardunaldia	
Intxurre-Irauli Bosteko	3-3

Sailkapena

5. Intxurre	6p
-------------	----

GORENGO MAILA, KOPA

Hurrengo jardunaldia,	
kanporaketa	
Intxurre-Trintxerpe	

Saskibaloia

LEHEN MAILA NAZIONALA

26. jardunaldia	
Avia Ziz. Ard.-Red. M. TAKE	58-74

Sailkapena

6. Redline Mekanika Take	16-10
--------------------------	-------



Nerea Eizagirre, irudiaren erdian, Arconada entrenatzailearekin batera kopari eusten. REAL SOCIEDAD

«Izugarriak izan dira lorpena eta ospakizuna»

Espainiako Kopa irabazi du Nerea Eizagirre tolosarrak Realarekin.

I. Terradillos-I. Garcia Landa
Tolosa

Nerea Eizagirre tolosarrak historia egin du Realarekin Espainiako Kopa lortuz. Baina bere agenda ez dago geldirik. Espainiako Selekzio absolutuaren deialdian sartu dute, eta lortutakoa barneratzen ari zen bitartean mailetak egiten ari zen atzo goizean. «Orain kontziente izaten ari gara», esan du Eizagirrek. «Gertatzen denean ez zara jabetzen. Gaur [atzo] kontuak asimilatzen joan behar dugu. Poza izugarria da, azkenean urte osoko lana horrela bukatzea ez genuen imajinatu ere egingo».

Atletico Madrilaren aurka jokatuako finala gogorra izan zen: «Beraiek aurretik jarri ziren eta oso ondo hasi zuten partida. Bagenekien partida gogorra izango zela. Gure taldeak berdin jarraitu zuen, eta segituan sartu genuen berdinketako gola eta indar gehiago hartu genituen». Bigarren zatian aurkariak urduriago ikusten zituen tolosarrak: «Azkenean beraiek ohituta daude dena irabaztera, eta erraz gainera». Bigarren zatian sartu zuen Realak bigarren gola eta bukaera arte eutsi zioten markagailuari: «Bigarren gola sartu eta gero esan

genuen finala gurea zela, eta hortik aurrera minutuak sufritzen pasagenituen. Indarrak atara genituen denok batera finala irabazteko, eta gero eromena izan zen. Jende asko etorri zen gu animatzera eta jende horiekin guzkiekin ospatu genuen zelaian bertan».

Ospakizuna «zoramen» izan zela dio Eizagirrek. «Kapitainak kopa hartu eta guregana ekarri zuenean, orduan izan zen esan genuenean 'lortu dugu eta hemen gaude'. Nik aurretik esan nuen aste osoan zehar bisualizatzen nuela kopa altxatzen. Eta azkenean denon ametsa errealtate izatea lortu genuen. Beraiek kopak askotan irabazi dituzte, baina guri ilusioan eta gogoan ez zigutela irabaziko ikusten genuen».

Granadan bertan izandako ospakizunen ondoren, etxekoak iritsi ziren. «Zubietara joan ginen eta jende pila bat zegoen, eta ezin ginen jaitsi ere egin autobusetik. Ez genuen espero, izugarrizkoa izan zen. Eta gero udaletxera joan ginenean, eta kanpoalde guztia beteta zegoen. Sekulakoa. Oso babestuak sentitu ginen eta oso polita izan zen. Gero, arratsaldean Anoetara joan ginen. Hor hasi zen dena, bertan finalerdia irabazi geniolako Sevilari. Eta oso momentu politak izan ziren. Bizitza osorako gorde-ta geratzen diren uneak dira».

Eizagirrek esan duenez, «emakumeen kirola, eta kasu honetan

futbola, indarra hartzen ari da. Espainiako selekzioarekin Europako eta Munduko txapelketak jokatu izan ditut, eta mugitu da jendea, gertu sentitu ditugu. Orain Realarekin lortutako honekin, inflexio puntu bat bada emakumeen kirola gorantz doala ikusteko». Futbolari tolosarrak gaineratu duenez, «Erreginaren Kopa irabaztea ez da gauza erraza, eta lortu dugu. Haurrek, dagoeneko, ikusten gaituztenean kaltetik, geratu egiten gaituzte eta argazki bat ateratzea edo sinatzea eskatzen dizute, eta hori lehen ez zen gertatzen. Parekatzen ari gara gauza asko. Egia da oraindik lan asko dagoela egiteko, baina bide onetik goaz, eta ea denok batera egunen batean lortzen dugun parekidetasuna».

Eizagirre orain Espainiako selekzio absolutuarekin izango da astebetetz. Lehen aldiz deitu dute absolututik. Munduko txapelketa jokatu da aurtun Frantzia eta horri begira partida bat jokatu dute. «Gogotsu nago aste honetarako, aste polita izango da», esan du tolosarrak. «Gero, itzultzen naizenean, deskantsatu pixka bat, deskonektatu, eta ekainaren bukaeran deialdia izango dut Espainiako 19 urte azpiko selekzioarekin Europako Txapelketa jokatzeke Eskozian. Agenda bete-betea dugu, baina polita da. Lehengo urtean txapelketan izan ginen Europako txapelketan eta polita izango da txapela bi aldiz lortzea».



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Tolosako Udalak, Txistulari Bandarako lan poltsa bat egin behar du, txistu-silbote eta perkusio-atabala espezialitateko bi kide hautatzeko.

Oinarriak eta eskaera egiteko orriak, Tolosako Udaletxeko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zaharrako 6 A zkan, edota udaleko web orrian (www.tolosa.eus).

Eskaerak aurkezteko epea 2019ko maiatzaren 31ean bukatuko da. Tolosa, 2019ko maiatzaren 10ean

ALKATEA

OLATZ PEON ORMAZABAL

Iker Karrera omendudute amezketarrek

Amezketako Mendi Asteari amaiera emanez jaso du mendi lasterkari ohiak herritarren omenaldia.

Erredakzioa Amezketak

Amezketako Buruntzunzin Mendi Elkartek maiatza heltzarekin batera antolatzen du Mendi Astea eta aurtengoari itxiera herritar bati omenaldia eginez eman zaio. Izan ere, Iker Karrera mendi lasterkariak «merzitako» omenaldia jaso du, kultur etxean egindako ekital-

dian. Omenaldi horretan, Iker Karreraren ibilbide profesionala eta pertsona bera batzen dituen dokumentala eskaini zen. Dani Sagastume izan da dokumentala egitearen arduraduna eta horretarako, besteak beste, Karreraren lorpenik handienak, bere anaiaren hitzak, Goio Larrañaga eta Javi Dominguezen esanak eta Iker Karreraren bizipenak jaso ditu. Dokumentalaren ondoren, Zigor Iturrieta mendi lasterkari ohiak eta egungo Txorie-ne saioko aurkezleak gidatu zuen galderen txanda. Biak 2010ean ezagutu ziren eta 2018an elkarrekin utzi zuten

mendi lasterketen mundua, pasa den abuztuan, PTL lasterketan. Nabari izan zen bien artean laguntasun handia dagoela eta bertaratutakoek barre egiteko tartea ere izan zuten beraien arteko solasaldian. Horrez gain, Karreraren lorpenez galdetzeko, mendi lasterketen egoera nola ikusten duen jakiteko eta kirolak gizartearen duen gairik garrantzitsuenak gogoetatzeko ere baliatu zuten ekitaldia.

Txapeldun batek merezi duen txapela ere oparitu zioten, eta ondoren, urtero legez, Mendi Astearen parte hartu zutenek afaria egin zuten.



Iker Karrera, omenaldiaren une batean. IMANOL ARTOLA 'FELIX'

Euskadiko Koparen lehian ari dira orain, eta Bizkerre B taldearen aurka irabaziz hasi dira.

I. Garcia Landa Tolosa

Tolosa CF Euskal Ligako jokalariek omenaldia jaso zuten larunbatean Berazubín, liga irabazi eta bigarren mailara igoera lortu ondoren. Tolosa CF eta Anaitasunaren arteko ohorezko erreional mailako partidaren aurretik jaso zuten zaletuen eta jokalarien txaloak Euskal Ligakoek. Lehenbizi pasilloa egin zieten Tolosa CF eta Anaitasuna taldeetako jokalariek. Ondoren, Tolosa CF-ko bi talde nagusiek argazkia ateratzeko elkartu ziren. Azkenik, Aiora Galarza kapitainak egin zuen ohorezko sakea.

Euskal Ligako taldeari omenaldia Berazubín



Pasilloa egin zieten Euskal Ligako jokalariei, larunbatean, Berazubín. I.G.L.

Behin liga amaituta, Euskal Ligakoak Euskadiko Koparen lehian sartu dira. Larunbatean bertan zuten lehen kanporaketa, aurre fasea, hain zuzen. Bizkerre B taldearen aurka jokatu zuen Tolosa CFk Usabalen eta 2-1 irabazi zuen. Partidaren lehen zatian 2-0 irabazten ari ziren, eta partidaren nagusitzen ari ziren tolosarrak. Partida amaitzeko hamar minuturen faltan jaso zuten kontrako gola, eta pixka bat sufritu zuten.

Final-zortzirenetako neurketa izango da Tolosa CF-k datorren larunbatean jokatu duena, 15:30ean, Usabalen. Oitartun taldea izango du aurrez-aurre, bigarren mailako taldea. «Aukera ona izango da maila horretako talde baten aurka jokatzeko, datorren denboraldian maila horretan ariko baikara lehiatzen», esan du Imanol Cabero Tolosa CF-ko entrenatzaileak.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2019KO MAIATZAK 14
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaledea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Zizurkilgo saihesbidea eskatzeko mobilizazio kanpaina, abian

Herritar talde batek Biala Orain plataforma sortu du, Bulandegi eta Hernio Bidetik pasatzen den trafikoa arintzeko eskatuz; saihesbidea eskatzen dute eta mobilizazio kanpaina bat egin dute

Erredakzioa Zizurkil

Herritar ugarik egin zuten bat, larunbatean, Biala Orain taldeak egindako elkarretaratze deialdiarekin. Saihesbide bat eskatzen dute, izan ere, egunero 10.000 ibilgailu inguruk egiten dute Bulandegi eta Hernio Bidea eta alternatiba bat eskatzen dute. Biala Orain taldeko kideek esan dutenez, kontuan hartu behar da ere Asteasuko industria gunera joateko bide bakarra dagoenez, eta hori Elbarrenako erdigunetik pasatzen denez, zarataz gain, kutsadura eta osasun arazoak ere pairatzen dituztela.

LEGEDIA

Bulandegi Bideko joan-etorriek legediak ezarritako gehiengoak gainditzen dituztela diote: «Bulandegi bidean, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2017ko abuztuan egindako soinu neurketen arabera zarata mailak mugak gainditzen ditu».

Biala Orain taldea osatu duten herritarrek hainbat datu bildu dituzte, eta horrela jakin dute Gipuzkoako Foru Aldundia 1990. urtean hasi zela gaia aztertzen,



Larunbatean egin zuten elkarretaratzea, Joxe Arregi plazan. A. IMAZ

baina oraindik ez diete irtenbiderik proposatu, «eta ez da txantxa, gaia 29 urte luzatu da. Eta orain ere foru aldundiak beste proiektu batzuei eman die lehentasuna, aurrekontu eza argudiatuz, aipatutako saihesbidea egiteko».

2018an 350 sinadura bildu zituzten saihesbidea eskatuz, eta Zizurkilgo Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali zizkieten. Era berean, gogoratu dute Zizurkil, Asteasu eta Alkizako udalek euren babesa erakutsi dietela,

aipatutako eskaera sinatuz. «Baina erabakia aldundiak hartu behar du, berea baita eskumena». Abuztuan Bulandegi eta Hernio Bideko errepidearen zoruaren eraberritze estrukturala egingo dutela esan die Gipuzkoako Foru Aldundiak, baina Biala Orain taldeko kideen iritziz «eraberritze lan horiek Zizurkil daukagun arazoa ez konpontzeaz gain, errepidea ibilgailu astunak pasatzeko prestatzen dute beste urte batzuetarako, beraz, arazoa finkatu besterik ez dute egingo».

ASTEARTEA 14

AGENDA

Deialdiak

Berastegi. Oinez Berastegi

16:00etan. Plazatik abiatuko dira eta gero merienda egingo dute Gaztairnondon.

Irura. Ipuinen unibertsoabertso errezitaldia 17:30ean, Harituz bertsozale elkartearen eskutik. Familientzako saioa, herri eskolako aretoan. Gai-jartzailea: Unai Mendizabal. Bertsolariak: Oihana Iguaran eta Haritz Mujika.

Anoeta. Maiatza Borrokan ekimenaren barruan arratsalde osoan, plazako arkupetan, Saharako aho-tsak panel bidez erakusketa egongo da, eta 19:00etan *Tres cámaras robadas* dokumentala ikusteko aukerazango da, udaletxeko areto nagusian, eta ondoren, solasaldia egingo dute Hassanna Aalia saharar aktibistarekin.

Tolosa. *Speeltheater Holland* erakusketa, Topic-en. Speeltheater Holland, Onny Huisink eta Saskia Jansek 1976an sortu zuten txo-txongilo konpainia holandarra izan zen. Konpainia 40 urte baino gehiagoz mundu guztian zehar biran ibili zen, gazte zein helduentzat antzez-tuz. Orduetgia: 10:00etatik 14:00etara, eta 15:00etatik 19:00etara.

Tolosa. *Kostako bidetik* erakusketa Aranburu jauregian. Zigor Garcia artista plastikoaren lanekin osatutako erakusketa, arte garaikidearen hizkuntza baliatuz. Orduetgia: 17:30etik 20:30era, igande, astelehen eta jaiegunetan izan ezik.

Tolosa. *Jorge Malcorra, lanak* erakusketa Aranburu jauregian, 17:30etik 20:30era.

Zizurkil. Andoni Roblesen erakusketa Atxulondo kultur etxean, 19:30etik 21:00etara.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eguneko albisteak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, Joseba Landa Bartzelonatik, Ander Lorenterekin teknologia tartea eta Jon Ander Galarragaren Bioaniztasunetik.

11:00-12:00. Hamaiketako. Ibaraldeko albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko jaioak.

16:00-18:00. Zebrabidea.

18:00-20:00. Goizeko onena.

20:00-20:30. Kokondo.

Oskar Tenaren musika tartea.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

16:30. Elkarriketap (Mikel Urdangarin).

17:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

20:00. Tolosako Udaleko osoko bilkura.

21:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

22:15. Haragi saio berezia.

23:00. Zer jan.

23:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa.

Ignacio Aranburu Olarreaga. Korreo kalea, 2.

Telefono zenbakia: 943 67 0128.

Gauekoa.

Azpiroz Galarza, Lourdes.

Amaroz auzunea, 9.

Telefonoa: 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro egonkorra. Antizikloiaren eraginpean jarraituko dugu eta horrekin giro eguzkitsa eta egonkorra izango dugu. Goizeko behe-lainoa salbu, giro urdina izango dugu eta apenas ikusiko dugu hodeirik. Haizeak ipar-ekialdetik joko du, bizi samar eta horrekin tenperatura maximoa 20-22 graduan errendituko da.

Bihar. Giro egonkorra jarraituko du. Zeruia urdin agertuko zaigu egun osoz, nahiz eta, goizean behe-lainoa izango den eta azken orduetan aldiz goi-hodei batzuk ikusiko ditugun. Haizeak ipar-ekialdetik joko du beste egun batez, berriz ere bizi, eta horrekin termometroak beste egun batez balio atseginetan kokatuko dira, maximoa 20-22 graduan errendituko da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20

Tolosa

www.ataria.eus · 107.6 fm